



BORDAZURI

Idazlea ZUBIRI'tar Iñaki (Euskerazaintzakoa).
Idazpurua: BORDAZURI.
Irarkola: I. BOAN, S. A. Bilbao.
Urtea: 1986.

Aurten Zubiri'tar Iñaki Idazleak liburu barri bat idatzi ta eskuratu dausku: BORDAZURI.

Liburua irakurriz, laster konturatuko da irakurlea idazlearen elburua zein dan: Euskerearen eta Euskalerriarren maitasuna sortu ta zabaldu, oraingo onetan Naparroa'ren egoerea kontuan artu eta eskualde onetako euskaltasuna be agertzeko garari biziagaz.

Udatzi dauz gure Zubiri'k beste liburu batzuk be, elburua antzekoa dala baiña bideak beste batzuk dirala. Olerkiak, antzerkiak eta elebarriak.

Elburu ori lortzeko, Yon Ander norki nagusia artu dau bide lez eta gaiñera bera da izan be elebarrian berba egiten dauana edo edeslaria.

SENDI-GIROA

Euskalerriarren oiñarria, sendia edo onen ordez eta ize-nean etxeko Jauna izan dirala, guztiok dakigu eta orreregaitik Elebarri onetan be oiñarria sendia da: Aitita goratzen da, aita erriagaitik nekeak igaro dauzan gizon zintzoa da eta Yon Ander bera nekezaria, gudari gaztea eta aitaren lekuan etxeko Jauna.

Sendi-giro onetan guda-aldian eta aurrean eta oslean gure sendiak igaro dabezana egun garratz eta illunak zeaztuten dira.

Naparroa

Elebarrian zelan edo alan Euskalerrri osoa agertu gura da, baiña geien agertzen diran eskualdeak Naparroa, Gipuzkoa ta Bizkaia dira: Naparroa biziteko, Gipuzkoa igarobide lez eta Bizkaia gudaldiko egunik gogorrenak edesteko, espetxerako bide larriak artzeko.

Naparroan guda-aurrean izan ziran jokabide gogorrek bear dan besteko argitasunaz agertzen dira, baiña euskaldunen ikuspegitik ikusita eta euskaltasuna sortzeko edo zabaltzeko bide batzuk eskintzen dirala.

GUDA-ARAZOAK

Sarritan entzun doguz gudaldiko jazokizun negargarriak, baiña elebarri au irakurten dauanak lengoak argitu eta barriak jakin egingo dauz, batez be gudaldiak Bizkaia'n izan ebazan estualdiak.

Guda-arazoakaz batera espetxekoak be argitasun eta bizitasun bereziaz agertzen dira. Sarritan entzun doguz olako jazokizunak be, baiña elebarri onek egoera ori bizi izaten lagunduko dausku.

Eta espetxearen ondoren larri lez, Gipuzkoan dan "Bideko Zoroa"ren edestia benetan gogoangarria da.

SENDIRA BARRIRO

Guda-ostean, oraindiño epetxetik etorriarentzat giroa naikoa larria dala, Yon Ander'ek bizitza barria asten dau, giro barrian eta itxaropen barrian. Izan be edeslari ta norki nagusia, gazte adoretua da.

Antxe geratzen da bere Bordazuri maitean bizitza barri orren eskariari erantzuten. Or elebarria zabalik geratzen da eta errez artuko leuke bigarren ekiñaldi bat.

NORKIAK

Norki asko zeaztuten dira elebarri onetan eta egokiro zeaztu be, baiña erri-arazoak agertzeko bereziak diran iru oneik aitatuko neukez nik, besteak beste: Maisu biurria ta gure jakintzaren arerioa, abade mesedegille ta bere lekuan egoten dakiana eta osagille euskalzale ta mesedegillea. Azkenengo onek bere bizia emon eban gudaldiaren asieran bere errian.

Norkirik geienak erritik artutakoen bizitasuna agiri dabe.

AZTERPEN LABURRA

Irakurgarria da benetan elebarri au. Irakurleak nekatu barik jarraituko dau azkeneraiño aria, Bizkai'ko euskerea itz egiten badaki beintzat. 422 errialde dira, baiña irakurri ondoren labur eretxiko dautsozu eta jazokizun guztiak argi ta garbi geratuko jatzuz buruan.

Bai azalean eta bai barruan irudi alai eta egokiak aurkituko dozuz, irakurketa ori nasaiagoa izan daiten.

Orra or euskal-elertirako ekarpen aundi bat.

OLAZAR'tar MARTIN'ek.